



IKUSMIRA

ONENEAN ERE, ITXAROPENARI EUTSI BEHAR

Hil-hurren dagoenak bere azken egunak etxe-koen artean emateko komenigarritasunaz ebazten duten bitartean, Euskal Herriko edozein bazterretan euskal preso politikoaren eskubideak etengabeko aldarria dira, bereziki larri gaixorik dauden askatasuna. Egokitasun politikoak besterik xedatu artean, Oier Gomezek espetxe-ospitaleko ziegan bere gaixotasunarekin bakarrean segituko du. Joan den asteazkeneko auzi saioaren ondoren itxaropentsu agertu ziren Oierren senideak eta



Luis JAUREGIALTZO eta Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

haren abokatua, eta hala beharko luke edozein amaren seme-alabak. Hala daude gehienak Euskal Herrian behintzat. Astelehenean jakinaraziko du Parisko Zigorrek Betearazteko Auzitegiak bere erabakia eta, onenean ere, itxaropenari eutsi beharra egongo da, itxaroten jarraitu, alegia, asteazkenean Oierren aurkako euroaginduen etetea aztertu arte. Ordiziako Artzain Egunean Alde Zaharra bete zuten ardi soraioek ere ez lukete ulertuko astelehenean erabakitakoa asteazkenean atzera botatzea. Eutsi, itxaropenari, goiari. Xabier Izaga Gonzalez